

UDALBATZA OSOA Bilkura-akta

Ohiko bilkura

Data: 2018ko urtarrilaren 17a, asteazkena.

2018ko otsailaren 21eko akta onesteko bilkuran egindako oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren 20:00etan, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna buru dutela, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udaltzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP) eta José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion)..

Bertaratu ez diren zinegotziak: Agustín Hervías Salinas (PP), bertaratu ezina arrazoitu du, Diana Rubio Lafuente (PP), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion), bertaratu ezina lan kontuenagatik arrazoitu du eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Legeak udalerrri honi eman dizkion zinegotzientzako hamaika aulkietatik, bat okupatu barik dago Dolores Ruiz Zuazo (PP) zinegotziak uko egin ziolako 2016ko abenduaren 21ean. Eta horregatik, nahiz eta hamaika izan Udaltzako kideen legezko kopurua, orain hamar kide daude.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, alde zuzenetik eta arauzko publikitatearekin. Honako hau da

Eguneko aztergaien zerrenda

1. Onestea 2017ko abenduaren 20ko aurreko ohiko bilkuraren akta.
2. Dekretuak eta alkatetza-ebazpenak.
3. Kultura, Turismoa, Festak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.**
5. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.**
6. Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea
 - 6.1 EH Bildu Oion taldearen mozioa, tokiko erakundeak defendatzeari eta horiek finantzatzeari eta ren zuzenketari buruzkoa.
 - 6.2 Uraren Euskal Agentziarekin lankidetzan aritzeko protokoloa, udalerriko jabari publiko hidraulikoan dauden ubideetan eta bazterretan elkarrekin esku hartzeko.

Azken puntua) Eskerak eta galderak.

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2017ko abenduaren 20an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharririk egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Ez da oharririk egin.

Hau erabaki da:

Onestea 2017ko abenduaren 20an eginiko bilkuraren akta, igorritako zirriborroaren arabera.

Aldeko botoak: 6 (sei): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP) eta José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion).

2. Dekretuak eta alkatetza-ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenak: 2017ko 264/17tik 265/17ra eta 2018ko 1/18tik 7/18ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

- 3. Kultura, Turismoa, Festak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.**
- 4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.**
- 5. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.**
- 6. Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea**

6.1 EH Bildu Oion taldearen mozioa, tokiko erakundeak defendatzeari eta horiek finantzatzeari eta ren zuzenketari buruzkoa.

Villanueva Gutiérrez jaunak EH Bildu Oion taldearen mozioa irakurri du, tokiko erakundeak defendatzeari eta horiek finantzatzeari eta buruzkoa. Honako hau dio:

Azken hamarkadetan, Arabako tokiko erakundeek beren gain hartu dituzte udalerriaz gaindiko legealdaketetan eta urteetan zehar agertu diren behar sozialetan oinarria duten zerbitzuak eta konpetentziak. EAEko Toki Erakundeei buruzko Legeak, duela bi urte eskas onartu zenak, zerbitzuak eta konpetentziak handitzeko aukera ematen die udalei. Eta azken horiek, subsidiarotasun-printzipioari erreparatuz gero, eragin positiboa eduki beharko lukete gure biztanleentzako zerbitzuen kalitatean, baita tokiko autonomia indartzean ere. Gauza bera gertatzen da Gizarte Zerbitzuen Legearekin. Izan ere, lege horrek duela urtebetetik bermatzen du herritartasunerako eskubide subjektiboa eta zerbitzu horietako gehienak udalek eskaini behar dituzte.

Hala ere, errealitate gordina da tokiko erakundeen finantzaketak 19/1997 Foru Arauak erregulatua, hamabost urte baino gehiago daramatzala ia eguneratu gabe eta tokiko erakundeen finantzaketa-beharra gora doala. Egoera horrek zuzenean eraso egiten dio tokiko autonomiari, ezinezko egiten die tokiko erakundeei haien beharrak betetzea eta ondorio izugarri negatiboak sorrarazten ditu gure biztanleentzat.

Horregatik, Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa erreformatu eta eguneratzeko aldarrikapena jarraia eta ahobatezkoa izan da azken hamarkadan zehar, bai kuadrilletan, bai kontzeju eta udaletan. Baina, zoritxarrez, ondoz ondoko foru-gobernuak ez dira gai izan irtenbide bat proposatzeko, eta atzerapena gero eta arazo gehiago sortzen ari da tokiko erakundeetan. Horren harira, aurreko legealdian batzorde txostengile bat martxan jarri zen. Azken horren helburuak ziren Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren eguneraketa aztertzea eta tokiko erakundeak finantzatzeko sistemetan aldaketa sakona planteatzea. Baina, borondate politiko nahikoa ez egoteagatik, batzordeetan eginiko lanak eten egin ziren haien ondorioak eman baino lehen. 2017ko lehenengo erdian, Batzar Nagusietan batzorde txostengile berri bat abiarazi zen aurreko legealdian egindako lanari jarraipena emateko, baina azken eginkizun horrek ere urte erdia darama geratuta inolako justifikazio barik.

Aurretik aipatutako guztiak kontuan hartuta, honako mozio hau aurkezten dugu Udalbatzan eztabaidatu eta onartzeko:

1. Oyón-Oiongo Udalak berretsi egiten du tokiko erakundeak finantzatzeko eredia aldatu eta Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa berehala eguneratu behar direla. Horren helburua da kontzejuen, udalen eta Arabako kuadrillen beharrezko finantzaketa bermatzea.

2. Oyón-Oiongo Udalak Batzar Nagusiei eta Arabako Diputazioari exijitzen die al bait arinen berraktibatzeke Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsari buruz udatik etenda mantendu duten batzorde txostengilea.
3. Oyón-Oiongo Udalak Arabako Foru Aldundiari eta Batzar Nagusiei eskatzen die Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa erreformatu eta eguneratzeko beharrezko legealdaketak hastean tokiko erakundeei parte-hartze zuzena errazteko. Horretarako, bide nahikoak eskaini beharko dizkiete kontzeju, udal eta kuadrillei, ekarpenak egin ditzaten.
4. Mozio hau Arabako Kontzeju Elkarteari, EUDELi, Arabako Batzar Nagusiei eta Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko diputatuari helaraziko zaie.

Halaber, alkate jaunak EAJ-PNVren zuzenketa irakurri du.

Alkate jauna: Uste dut eztabaidak batzordeetan egin behar direla eta horregatik ez naiz sartu EH Bilduren mozioari buruzko eztabaidan. Baina gogorarazten dut mozio politiko bat aurkezten denean gure taldeak eduki politikodun zuzenketa aurkeztuko duela.

Villanueva Gutiérrez jauna: Batzordeetan informazioa eta irizpenak eman behar dira. Uste dut mozioa aurkeztu duen taldeak eztabaida abiarazi behar duela. Gure ustez, osoko bilkurak eztabaidatzeko, gure mozioak defendatzeko eta gure ideiak azaltzeko dira. Oroitarazten dut legealdi honetan mozio gehien aurkeztu duen taldea garela, beste taldeek baino gehiago.

Alkate jauna: Gu gara gobernatzen dugun taldea eta gure eginbeharra gobernatzea, erabakitzea eta kudeatzea da. Mozioak aurkeztea ez da gure lehentasuna.

Mozioari buruzko gogoeta amaitu ondoren, EAJ-PNV taldeak EH Bildu Oionen mozioari egindako zuzenketa bozkatu da. Mozio hori tokiko erakundeak defendatzeari eta haiek finantzatzeko beharrari buruzkoa da.

1. Oyón-Oion Udalak uste du Ekarpn Legean erregulatuta dagoen euskal finantzaketa-ereduak arrisku partekatua ezarri eta udal-autonomia mantentzen duela, udal-kompetentziekin lotutako finantzaketa daukala eta, inbertsioarekin lotutako beste programa espezifiko batzuekin batera (OZFP, bidezidorrak, obra txikiak) tokiko erakundeen beharrak bete daitezen ahalbidetzen duela. Eredu hori Arabako Batzar Nagusiek erregulatzen du Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren Arauaren bidez.
2. Oyón-Oiongo Udalak ontzat jotzen du tokiko erakundeen finantzaketan 2018an egingo den % 0,5eko igoera. Azken hori Arabako Foru Aldundiaren Aurrekontuen Proiektuan dago eta udalen parte-hartzea % 57tik gora ezartzen du (EAEko balio altuenak).
3. Oyón-Oiongo Udalak egokia dela uste du 2018ko lehen seihilekoan Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren batzorde txostengilea bukatzea eta udaletako, kuadrilletako eta kontzejuetako ordezkariari entzun ondoren, adostasuna bilatzea ahal den neurrian talde politikoen artean. Horrek aukera eman behar du denboran zehar adostasun handieneko finantzaketa-eredua mantentzeko.
4. Oyón-Oiongo Udala ados dago gai garrantzitsu bati buruzko erabakia, tokiko erakundeen finantzaketa kasu honetan, guztien lana dela. Hori dela eta, Batzar Nagusietan egiten ari diren finantzaketari buruzko batzorde txostengilean tokiko erakundeek (udalak, kuadrillak eta kontzejuak) eta azken horien elkarrekin (EUDEL, AKE, GKE) parte hartzea eta ekarpenak egitea eskertzen du.

Aldeko botoak: 5 (bost): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV) eta Luis Felipe Campos Latre (PP).

Aurkako botoak: 1 (bat): José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion).

Zuzenketa onartu da eta ez da bozkatu EH Bildu Oion taldeak tokiko erakundeak defendatzeari eta haiek finantzatzeko beharrari buruz egindako mozioa.

6.2 EH Bildu Oion taldearen mozioa, Arabako Errioxa gurutzatuko lukeen Miranda Ebro-Logroño AHT linearako Sustapen Ministerioak proposatutako alternatibei uko egiteari buruzkoa eta EAJ-PNVren zuzenketa.

Alkate jauna: Batzar Nagusietan bilatzen ari gara AHTren trazaduraren alternatiben kontrako mozio bateratua lortzea. Nire proposamena da gaia egonean uztea Batzar Nagusietan babes handiagoko testua egon arte itzaroteko.

Aurrekariak:

- 1) Eguneko aztergaien zerrendatik gaia kentzeko alkate jaunaren proposamena, espedientea mahai gainean geratzeko eta horri buruzko eztabaida hurrengo saiora arte bertan behera uzteko helburuarekin.
- 2) Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua aplikatu behar da. Horren bidez, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onesten duena onartzen da.

Adostu da:

- 1) Gaia eguneko aztergaien zerrendatik kentzea: EH Bildu Oion taldearen mozioa, Arabako Errioxa gurutzatuko lukeen Miranda Ebro-Logroño AHT linearako Sustapen Ministerioak proposatutako alternatibei uko egiteari buruzkoa eta EAJ-PNVren zuzenketa.

Aldeko botoak: 6 (sei): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP) eta José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion).

6.3. Uraren Euskal Agentziarekin lankidetzan aritzeko protokoloa, udalerriko jabari publiko hidraulikoan dauden ibilgu eta bazterretan esku hartzeko.

Alkate jaunak Uraren Euskal Agentziaren Ibilgu Mantentze eta Leheneratze Zerbitzuaren berri eman du. Horren helburua da udalerriko jabari publiko hidraulikoan dauden ibilgu eta bazterretan esku hartzea.

Protokoloa URaren Ibilgu Mantentze eta Leheneratze Zerbitzuari dagokio. Hau da, isuriketekin, obra handiekin edo uholdeek sortutako arazo larriekin lotutako arazoak ez dira protokoloaren eginbeharrak.

1. Bioingeniaritza eta obrak: Jarduketa eta obra txikiak dira, honako hauekin lotutakoak ibaiko konektibitatea hobetzeko presa txikien eraispenak, higidura-prozesuengatik ezpondak egonkortzea, ibilgua bere egoera naturalera bueltatzeko hesiak eta hormak kentzea edota antzeko ezaugarriak dituzten eta ibai-ekosistema eta biodibertsitatea hobetzen duten beste jarduketa eta obra txikiak.
2. Landaketak: Ubidearen ertzak basoberritzeko jarduketak dira, erriberako zuhaitz edo zuhaixken espezie autoktonoak landatuz. Horren ostean, 2 urtez mantentze-lanak egiten dira landaketa bermatzeko. Hirugarren urtetik aurrera, plantzioari bere kabuz hazten uzten zaio.
3. Flora inbaditzailea kontrolatu eta kentzea: Flora-espezie inbaditzaileen eliminazio- eta kontrol-jarduketak dira, baliabide mekaniko eta fitosanitarioen bidez. Bukatzeko, espezie autoktonoak landatzen dira.

4. Sekzio hidraulikoaren mantentze-lanak: Ibilguak gainezka egiteko arriskua sorrarazten duten trabak kentzeko jarduketak dira. Traba horiek normalean zuhaitz eroriek edo pilatutako landaretzak sortuak dira.

Zeintzuk dira udalek proposa ditzaketen jarduketak?

Zerbitzuaren helburu nagusia da ibaietako ekosistemen ingurumen-hobekuntza eta flora eta faunaren biodibertsitatea handitzea. Helburu hori duten jarduketa-proposamenak ongi etorriak eta lehentasunezkoak izango dira URarentzat; adibidez, bioingeniaritza eta obrak, landaketak eta flora inbaditzailea kontrolatu eta kentzea

Sekzio hidraulikoa mantentzeko jarduketan kasuan, helburua da biztanle-guneetan ibaiak gainezka ez egitea. Udalak herrigunean ibilguak mantentzearen arduradunak dira eta URAk baimendu ostean, zuhaitzak, tapoiak edo sedimentuak baztertzeko lanak ere egin ditzakete.

Kasu askotan, sekzio hidraulikoa mantentzeko jarduketan eskaria egiteko arrazoiak zuhaitzen erorketak edo landaretza edo sedimentuen pilaketa dira. Horiek ibaian oztopoak eragin ditzakete. Hala ere, garrantzitsua da ulertzea zuhaitzen erorketaren edo tapoien sorreraren atzean dauden arrazoiak. Batzuetan, azken horiek kausa naturalek sortzen dituzte, eta beste batzuetan, lurraren erabilera txarraren ondorioa dira. Izan ere, ertz asko guztiz deforestatuta daude, gune horiek nekazaritza, industria, etxebizitza edo zerbitzuetarako erabiltzen direlako.

Gainera, zuhaitzen ehuneko handi bat ibilgura erortzeko arrazoiak ezpondan kokatuta egotea da, ez ertzetan, eta bolumena eta pisua hartzen dutenean, grabitate-indarragatik erortzen dira. Ertzetan landatuta egongo balira, modu aipagarrian murriztuko litzateke eroritako zuhaitzen kopurua eta erorketa horiek sortutako higaduren larritasuna.

Era berean, ibilguan landaretza pilatzeko arrazoi nagusia da erriberan baso egoki batek sortuko lukeen itzala ez egotea; horrek landaretza ibilgu barruan haztea eragozten du.

Txarto erabiliak izaten ari diren ertzen kasu horietan, udalek URari sekzio hidraulikoa mantentzeko jarduketak proposatu ahal dizkiote, betiere ertzen erabilera kaxkarrari konponbidea eman ahal zaionean. Kasu askotan, beharrezkoa izango da jarduketari ertzak lehengoratzeko edo basoberritzeko proiektu bat gehitzea.

Kasu batzuetan, ibilgua eta ertzak oso aldatuta edo gizatiartuta egon daitezke eta litekeena da leku zehatz horretan irtenbidea aurkitzea ezinezkoa izatea tekniko eta ekonomikoki. Hala ere, kasu horietan sustatuko litzateke udalerrian dagoen eta bideragarriagoa den beste leku bat lehengoratu eta basoberritzea.

Eta zer dagokie udalei?

Garrantzitsua da azpimarratzea protokoloak *per se* ez dituela inplikatzeko lege-baldintza gehiago araudiak berak adierazitakoak baino. Administrazioak ezagutzea eta izapideak arintzea lortzeko, garrantzitsua da udalei aplikatzen zaizkien honako arau hauek oroitaraztea:

1. Pasaguneen obrak edo azpiegiturak (zubiak, presa txikiak, estaldurak, pasaguneen obrak, etab.) mantentzea: Jabari publiko hidraulikoan oztopoak (landaretza, sedimentuak, etab.) kentzea eta zubiak, presa txikiak, pasaguneen obrak edo beste azpiegitura batzuk mantentzea TITULARRARI dagokio.

Normalean, titulartasuna foru-aldundiei, udalei edo batzarrei dagokie. Horregatik, azken horiei exijitu behar litzateke haien azpiegiturak mantentzea. Titularrak URari obra-baimena eskatu behar dio mantentze-lana egiteko. Mediterraneoan kasuan, onargarria da erantzukizunpeko adierazpena, betiere ibaiaren gune babestu batean ez badago. Titularraren betebeharrak Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiaren 126 ter artikuluan jasota dago.

Hiri Hondakin Solidoak kentzea: Udalaren betebeharrak da hondakinen garbiketa eta kudeaketa, ibilguan daudenak barne. Hori dela eta, udala da kentzeko arduraduna. Babesturiko natura-guneetan badaude, garrantzitsua da foru-aldundiari eta URari berri ematea fauna-espezieei oztoporik ez eragiteko, gehien bat ugaltze-garaian (martxoaren 15etik uztailearen 31ra). Gerta daitezke, batzuetan, URAk bolumen handiko HHSren bat aurkitzea (pneumatikoak, etxetresna elektrikoak, etab.)

jarduketa batean zehar. Kasu horretan, URak jarduketa egiten ari den finkan bilduko ditu udalak kendu eta modu egokian kudeatzeko.

Lursailak lortu eta kudeatzea: Jarduketa gehienek, hala nola bioingeniaritza eta obrenak edo basoberritzeenak, bazterretan tarte bat behar dute. Batzuetan lursaila publikoa da eta jarduketa horiek egitea erraza da, baina kasu askotan titular pribatuenak dira. Nahiz eta legeak argi eta garbi adierazten duen zortasun-eremuaren 5 metroen helburu nagusia ekosistemak babestea dela, oraingoz, jarduketak egiteko lursailen titularrekin akordioetara heltzen da. Zentzu horretan, herritarrarengandik hurbilen dagoen administrazioa denez, garrantzitsua da udalak bitartekari-lanak egitea lursailen titularren baimena eta konpromisoa lortu eta jarduketak egiteko, bai ingurumena hobetzekoak, bai basoberritzea edo ingurumen-hobekuntza behar dituzten sekzio hidraulikoak mantentzekoak. Lursail publikoen kasuan (luberrak, etab.), beharrezkoa da udalak zehaztea jarduketa egin daitekeen esparrua.

Sarbide-baimenak eta landaretza-hondakinen bilketa-baimenak: Zuhaitzak kentzeko edo sekzio hidraulikoa mantentzeko jarduketek landaretza-hondakinak sortu ohi dituzte. URak ezpaltzen ditu eta zortasun-eremutik (ibilgutik 5 m) kanpo uzten ditu 6 mm baino diametro txikiagoa duten landaretza-hondarrak. Bestetik, 6 mm baino diametro handiagoa dutenak moztu egiten ditu, egur gisa erabili ahal izateko. Garrantzitsua da finkaren titular pribatu eta publikoak hondakinen kudeaketa hori ezagutzea eta baimena ematea lursailera sartzeko eta bere orubean landare-hondakinak utzi ahal izateko.

Herrigunean kokatutako ibilguen jarduketa: Plan Hidrologiko Nazionalak, uztailearen 5eko 10/2001 Legeak onartua, 28.1 artikuluan, xedatzen du herriguneetan kokatutako ibilguen jarduketak lurralde-antolamenduaren arloan (Eusko Jaurlaritza eta URA) eta hirigintzaren arloan (udala) eskumena duten administrazioen esku geratuko direla, administrazio hidraulikoak jabari publiko hidraulikoan izan ditzakeen eskumenei kalterik eragin gabe. Horrek esan nahi du bi administrazioak direla herriguneetako jarduketan arduradunak eta biek egin ditzaketela jarduketak. Udalaren kasuan, URari baimena eskatu beharko dio.

Udalerriaren ibilguetako jarduketak: Orokorrean, edozein pertsona fisiko edo juridikok egin ditzake jarduketak ibilguan, administrazio eskudunak onartu ondoren; normalean URA izango da. Hala ere, beste batzuetan (babestutiko natura-guneak, ehiza- eta arrantza-guneak, etab.), beste administrazio batzuen (foru-aldundia edo besteren bat) baimena jasotzea beharrezkoa izan daiteke.

Aurrekariak:

1. URarekin lankidetzan aritzeko protokoloa, udalerriko jabari publiko hidraulikoan dauden ibilgu eta bazterretan esku hartzeko. Erreferentzia alfanumerikoa: Hirig/ Ura 2018ProtocoloMárgenes.
2. 2018ko urtarrilaren 10eko Ekonomia, Ogasun eta Hirigintza Batzordearen saioan egindako proposamena.

Adostu da:

1. Onartzea URarekin lankidetzan aritzeko protokoloa, udalerriko jabari publiko hidraulikoan dauden ibilgu eta bazterretan esku hartzeko.
2. Eduardo Terroba Cabezón alkate-udalburua gaitzea protokoloa izenpetzeko eta bere garapena bermatzeko beharrezko jarduerak egiteko.

Aldeko botoak: 6 (sei): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP) eta José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion).

Jorratzeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:55ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2018ko otsailaren 4an.
Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE